

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2012KO AURREKONTU OROKORRAK ONARTZEN DITUEN LEGEAREN AURREPROIEKTUARI BURUZKO TXOSTENA.

Txosten hau Ekonomia eta Ogasun sailak hala eskatuta egin du Emakundek, Emakumearen Euskal Erakundeak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 21. artikulua emandako eskumena erabiliz.

Txostenaren helburua 4/2005 Legeko 19. eta 20. artikuluetan eta generoaren araberako eragina ebaluatzeko jarraibideetan erabakitakoa betetzen den egiaztatzea da, baita bereizkeria ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko neurriak hartzea ere (neurri horiek Gobernu Kontseiluak onartu zituen, 2007ko otsailaren 13an). Gainera, egoera hobetzeko proposamenak ere jaso ditu.

Aipatutako Legearen aurreproiekturen helburua Euskal Autonomia Erkidegoko 2012ko Aurrekontu Orokorrak onartzea da, eta horretan gainera txostena eskatu da, bada. Helburua eta maila kontuan izanik eta lehenengo jarraibidearen 2. atalean xedatutakoarekin bat, aurreproiektua ebaluatu egin behar da generoaren araberako eraginari dagokionez.

Horretarako, lehenengo jarraibidearen 4. eta 6. ataletan aurreikusitakoari jarraiki, generoaren araberako eraginaren txostena egin du Ekonomia eta Ogasun sailak; alegia, araua sustatu duen organoak, prozedura arruntari jarraiki.

4/2005 Legeak eta generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideek aurreikusitako izapide formalak bete direla ikusita, ondorengo gogoeta eta proposamenak egin dira eraginari buruzko txostenaren inguruan. Uste dugu gogoetok eta proposamenok baliagarriak izango direla generoaren arabera eraginari buruzko txosten honen eta hurrengo behin betiko bertsioa osatzeko.

Lehenik, positiboki baloratu behar dugu eraginari buruzko txostena egiteko Ekonomia eta Ogasun sailak egindako ahalegina. Sail horrek, aurreko ekitalditan garatutako lan prozedura jarraituta, gobernu osatzen duten sail guztiei eskatu die batetik, langileen bitartez, esku hartzeko arloan emakumeen eta gizonen egungo egoera eman dezatela, eta bestetik, aurrekontu programen artean identifika ditzatela emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko helburuak, ekintza edo/eta jarduerak.

Gainera, aurrekontuei buruzko aurreko legearen eraginari buruzko ebaluazioa zela eta erakunde honek egindako hobetzeko proposamenei erantzuna emateko lan egin da, eta horri esker:

- EAEko emakumeen eta gizonen egoeraren baterako analisi ordenatua azaldu da, V. Berdintasun Planean eta jarraibideetan zehaztutako irizpideen arabera, eta arlo bakoitzeko desberdintasunik nabarmenenak azpimarratu dira, horiek baitute esku hartzeko premiarik handiena.
- emakumeen eta gizonen arteko berdintasun helburuak lortzera bideratutako aurrekontu programen analisi berezitua eskaini da aurrekontu dokumentuaren egitura eta aurrekontu memorien edukiaren arabera, eta

bereizita identifika daitezke programak eta esleipenak honakori dagokienez:

- o berdintasuna lortzeko bakarrik lan egiten duten organismoak edo/eta emakumeen egoera hobetzeko berariazko zerbitzuak
 - o berdintasun politikak kudeatzeko sailetan sartutako berdintasun teknikariak
 - o helburu eta ekintzen artean berdintasuna duten programak
 - o berdintasunera bideratutako berariazko jarduerak edo partidak dituzten programak, esplizituki aipatzen ez badute ere.
- sail bakoitzean eta, oro har, gobernuan berdintasun helburuak lortzera bideratzen diren programen kopuruaren eta ehunekoaren analisi kuantitatiboa eskaini da eskura dauden datuak baliatuta. Hala ere, interesgarria izango litzateke azaltzea aurrekontu guztiaren zer ehuneko bideratzen duten gobernuak, oro har, eta sail bakoitzak berdintasuna sustatzera, baita ehunekoa aurreko ekitaldikoekin alderatzea ere, bideratzen dena gutxitzen edo areagotzen den ikusi ahal izateko.

Halaber, atal berriak sartu dira eraginari buruzko txostenean ekitaldi honetan. Euskal administrazioko emakumezko eta gizonezko langile kopuruaren analisisia eta sarreraren analisisia dira atalok. Horiei esker, ebaluazio dokumentua osatuagoa eta garatuagoa da, baina oraindik ere beharrezkoa da EAEko aurrekontu orokorren gastuen eta sarreraren generoaren analisi sakonagoa egitea.

Edonola ere, hurrengo ekitaldiei begira, erakunde honi txostena lehenago eskatzea komeni dela adierazten da berriro. Hartara, denbora nahikoa izango genuke aipatutako izapidea behar bezala egiteko.

Bigarrenik, positiboki baloratu behar dugu ere eraginari buruzko txostena osatzen lagundu duten sailek egin duten ahalegina, eskatutako galdetegiak bete baitituzte. Hona hemen sailok:

- Lehendakaritza
- Herrizaingo saila
- Ekonomia eta Ogasun saila
- Justizia eta Herri Administrazio saila
- Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio saila
- Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo saila
- Enplegu eta Gizarte Gaietako saila
- Osasun eta Kontsumo saila
- Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza saila
- Kultura saila

Hala ere, eraginari buruzko txostenean adierazten denez, *«Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak adierazi du bere aurrekontuaren egungo egitura dela eta ezin direla genero ikuspuntua garatzen duten ekintzak berariaz identifikatu helburu zabalagoetan sartzen direlako. Horrek aurrekontuaren bolumen handiari eragiten dio, beraz, banakako partidak identifikatzeak berdintasunaren eta emakume eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzearen edo murriztearen alde garatzen den lana gutxietsiko luke»*.

Ilido horretatik, adierazi nahiko genuke garrantzitsua izango zela Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak berdintasun helburuekin edo ekintzekin identifikatzea aurrekontu programak, gainerako sailek egin duten bezalaxe, zaila

bada ere; izan ere, agerikoagoa izango zen sailak berdintasunaren alde egiten duen lana, aurrekontuari dagokionez.

Hirugarrenik, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzera bideratutako aurrekontu programei, helburuei, ekintzei eta jarduereri; hain zuzen ere, sailek eraginari buruzko txostenaren 8. atalean atxiki eta bildutako dokumentuetan identifikatutakoei helduta, egindako hautaketa berrikustea eta doitzea komeniko litzateke; izan ere, horietako batzuek ez dute berdintasuna lortzea helburu edo/eta herritar guztiei zuzentzen zaizkie berdintasun jardueren edo/eta berariazko partiden aurreikuspena aintzat hartu edo azaldu gabe. Beste kasu batzuetan, identifikatutako berdintasun ekintzek ez dute eduki ekonomikorik.

Laugarrenik, eraginari buruzko txostenaren 7. atalean aipatzen diren desberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurrien harira, adierazi nahiko genuke ia gehienak generoaren arabera eraginari buruzko txostena egitera mugatzen direla (sailen arteko lankidetzak, berdintasun ekintzak ekonomikoki mailakatzeko eta kuantifikatzeko irizpideak ezartzea, eta abar) 4/2005 Legeko 14. artikuluan aurreikusitakoa betetzeko eta genero analisia aurrekontu prozesuaren maila guztietan sartzeko –Europar Batasunak 2015erako exijitzen duen bezalaxe– neurri orokorrakoei eta asmo handiagokoei heldu gabe.

Ildo horretatik, sail bakoitzean eta, bereziki, Ekonomia eta Ogasun saileko Aurrekontu zuzendaritzan aurrekontuak egiten lan egiten duten teknikariei eta politikariei genero ikuspegia duten aurrekontuen arloan prestakuntza ematera bideratutako neurriak sartzeko gomendatzen da. Era berean, erabilgarria izango

litzateke sailarentzat genero ikuspegia duten aurrekontuak eta lortutako emaitzak ezartzeko beste erkidego batzuetan garatutako esperientziak ezagutzea.

Bestalde, oso garrantzitsua litzateke sail guztiek eta, bereziki, aurrekontu gaietako eskumena duen sailak, hurrengo aurrekontu ekitaldiei begira, aurrekontu programek generoarekiko duten sentsibiltatea eta emakumeen eta gizonen egoeran sortzen duten eragina zehaztaper handiagoarekin eta modu progresibo eta trinkoan aztertzeko Emakundek Enplegu eta Gizarte Gaietako sailarekin, Herri Administrazio sailarekin eta Kultura sailarekin batera hasitako lanean parte hartzea eta laguntzea.

Azkenik, Legearen aurreproiektua idazterakoan hizkera ez sexista erabili dugu, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeko 18.4. artikulua aurreikusitakoarekin bat. Hala ere, soilik maskulinoan adierazitako zenbait termino (tartean enplegatzailea, langilea, onuradunak, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak) berrikusi eta egokitu beharko lirateke gaztelaniazko bertsioan.

Azkenik, txosten honetan jasotako proposamenak ikusi ondoren edo aurreproiektuan egindako aldaketen ondorioz generoaren araberako eraginari buruzko behin-behineko txostenean aldaketarik sartzen bada, jakinaren gainean jarri behar gaituzue. Horretarako, eraginari buruzko behin betiko txostena igorri beharko diguzue EHAAn argitaratu baino lehen. Bestela, behin-behineko txostena argitaratzen denean behin betikoa dela ulertuko dugu. Hori guztia, Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeak generoaren araberako eraginari buruzko txostenen jarraipena eta horien barne erregistroa egin behar duela zehazten duen bigarren jarraibidea betez, Euskal Autonomia Erkidegoko sailek,



organismoek eta erakundeek edo lotutakoek txostenok kontsultatu ahal izan ditzaten.

Gasteizen, 2011ko urriaren 21ean.